



Egilea: ISOLDE STEIN-LEIBOLD
Nazioarteko Gipuzkoa Trofeoa
Trofeo Gipuzkoa Internacional
(Irabazlea koloretan)



argazkilaritza maiatzean
EIBAR 2016

deporeibar.com/argazkia

Agustin Sagasti

PORTALEA: Maiatzak 6-29 Mayo

Asteartetik igandera – 18:30-20:30 – Martes a domingo

“ARQUITECTURA Y TIEMPO”

Agustin Sagastik betidanik erakutsi izan dizkit, bere-argazkilari-begietatik, arkitekturak sorrazten dion pasioa eta diziplina hori ezagutu eta interpretatzeko duen nahia. Gure hizketaldirik gehienak dira arkitekturaren ingurukoak, baita Eibarren aurkezten dituen argazkiak ere. Sagastik ondo barneratuta dauka Le Corbusier-ek arkitekturaren gainean egiten duen definizioa: “*Argipeko bolumenen joko jakintsua, zuzena eta zoragarria*”. Baina, berehala ikusiko dugun moduan, ikerketa pertsonal honetan erakusten digu Arkitektura Modernoaren Maisua motz gelditu zela Arte horri dedikatutako hitzetan.

Arquitectura y Tiempo argazkiek forma arkitektonikoen zehaztasunen barrena lasai ibiltzera bultzatzen dute ikuslea, eta irudizko mundu batera garamatzea, forma horiek osorik irudikatu ahal izateko.

Hemen proposatzen zaizkigun irudiak arkitektura-sekuentziak dira, eta, arkitektura-estilo edo modetara mugatu gabe, egileak balioa ematen die, argia eta denboraren batutarekin. Argazki guzti horietan arkitekturaren ikuspegi zintzoa eta begirunetsua eskaintzen digu, obra arkitektonikoaren gainetik estetika artistikoa esploratuz, eta erritmo, proportzio, simetria eta islaren bitartez ezustea eta zirrara bilatuz.

CESAR AZCARATE, ARKITEKTOA
www.agustinsagasti.com

“ARQUITECTURA Y TIEMPO”


Desde que conozco a Agustín Sagasti, éste me ha demostrado su pasión por la Arquitectura y su deseo de conocer e interpretar esta disciplina desde sus ojos de fotógrafo. La mayoría de nuestras conversaciones casi siempre giran en torno a ella, al igual que las fotografías que aquí presenta.

Sagasti tiene bien interiorizada la célebre definición de Le Corbusier en la que se refiere a la Arquitectura como “*el sabio, correcto y magnífico juego de volúmenes bajo la luz*”. Pero, como enseguida veremos, nos demuestra en esta personal investigación que el Maestro de la Arquitectura Moderna se había quedado algo corto en sus palabras hacia este Arte.

Las fotografías de *Arquitectura y tiempo* incitan al espectador a recorrer con calma los precisos detalles de las formas arquitectónicas, y nos transportan a un mundo imaginario donde poder imaginarlas completas.

Las imágenes que aquí se nos proponen son una secuencia de arquitecturas que, sin ceñirse a estilos ni modas arquitectónicas, son puestas en valor por el autor bajo la batuta de la luz y el tiempo. En todas ellas nos muestra una visión sincera y respetuosa hacia la Arquitectura, explorando una estética artística por encima de la propia obra arquitectónica, buscando a la vez sorpresa e impacto mediante ritmos, proporciones, simetrías y reflejos.

CESAR AZCARATE, ARKITEKTOA
www.agustinsagasti.com





Koldo Badillo

PORTALEA: Maiatzak 6-29 Mayo

Asteartetik igandera – 18:30-20:30 – Martes a domingo

“DEL CAOS AL LABERINTO”

Agian, argazkilari bat baso batean sartzerakoan izaten duen lehenengo bulkada, irudi idilikoa lortu eta irudien eraikuntzan ordena konkistatzea da, baina gehienetan kaosak garaituko du. Horregatik erabaki nuen konposizio klasikoaren etsai horrekin bat egitea, eta edertasuna, eta baita sosegua ere, kaosaren barruan bilatzea. 200 mm-ko teleobjektiboa esku artean hartuta, inguratzen ninduen paisaia nolabaiteko distantziarekin begiratzen hasi nintzen, lehenengo inpresiotik haratago zerbaiten bila. Basoen irudietan begiradak jauzi egiten du lerrotik lerrora, enkoaraketatik irteten da eta berriro sartu, interesgune bat bilatzen du eta ez du aurkitzen, galdu egiten da, nora ezean dabil... Labirintoaren ideia da lan honetakoa ardatz nagusienetakoa.

Euskal Herriko basoetan barrena urteetan ibili ondorengo emaitza da erakusketa hau; baso horietan gure arbasoen habitata nolakoa zen senti daiteke, gure jatorrietara eramaten gaitu. Bisitaria irudi-baso honetan murgildu eta irudimena askatzera gonbidatzen dut. Unamunok esan zuen bezala, “*argazkia dakidana irudikatzea da*”.

“DEL CAOS AL LABERINTO”

Quizá el primer impulso que tiene un fotógrafo que se adentra en un bosque es el de captar una imagen idílica y conquistar el orden en su construcción de las imágenes, pero la mayoría de las veces será derrotado por el caos. Por ello decidí aliarme con ese enemigo de las composiciones clásicas y buscar la belleza, e incluso la serenidad, dentro del caos. Armado con un teleobjetivo de 200 mm empecé a mirar el paisaje que me rodeaba con una cierta distancia, buscando algo más allá de la primera impresión. En mis imágenes de bosques la vista salta de línea en línea, sale del encuadre y vuelve a entrar, busca y no encuentra un centro de interés, se pierde, deambula... La idea del laberinto es otro de los hilos conductores de este trabajo. Esta exposición es el resultado de una labor de varios años recorriendo los bosques de Euzkalerria, en los que todavía se puede sentir cómo fue el hábitat de nuestros ancestros y el modo en que nos transporta a nuestros orígenes. Invito al visitante a internarse en este bosque de imágenes y dejarse llevar por la imaginación. Como dijo Unamuno, “la fotografía es imaginar lo que sé”.

Manuel Vilanova

EL CORTE INGLES: Maiatzak 2-31 Mayo

“FACES OF THE WORLD”

Argazkilaritza betidanik gustatu izan zait, baina 2009an metamorfosia gertatu zen argazkilaritzarekin nuen harremanean: irakurle soila izatek irudi-sortzailera izatera pasatu nintzen. Xavier Ferrer lagunaren eskutik, ia konturatu gabe, bidaiatzen eta argazkiak ateratzen hasi nintzen. Haren babespean eta autodidakta moduan joan nintzen argazkilaritzarekin maitemintzen; bidaia bakoitzaren amaieran ilusioa hazten zihuan, eta hurrengo bidaiaren antolaketare gogotsuagoa zen.

Nire lana bisitatzen ditudan lekuetako bizilagunen entsegu antropologiko moduan definitu dezakegu. Narratzaile-ibilbide motza daukat, baina nire lanak erakusteko premia gero eta indartsuagoa da.

Hainbat herrialde bisitatzeko zortea izan dut; horietako bakoitzak bere kultura, ohiturak eta ezaugarriak ditu. Baina herrialde horien artean desberdintasunak aurkitzen ditudan arren, bada gizakietan aldatzen ez den zerbait: begiradaren bidez transmititzen diguten beren bizitzaren narratiba.

Begirada horiek bereziki erakarri eta liluratzen naute, eta begirada horietan oinarritu naiz bilduma hau egiterako orduan.

www.manuelvilanova.com

“FACES OF THE WORLD”

Si bien siempre me he sentido atraído por la fotografía, no es hasta el año 2009 en que mi relación con ella sufre una metamorfosis, pasando de mero lector a intentar ser creador de imágenes. Es de la mano de mi amigo Xavier Ferrer como, sin apenas darme cuenta, estaba viajando y haciendo fotografía. Y es bajo su tutela y de una forma autodidacta como me voy enamorando de este mundo, al final de cada viaje la ilusión iba en aumento y la planificación del siguiente era si cabe más entusiasta.

Mi trabajo podríamos calificarlo de ensayo antropológico de los personajes que habitan aquellos lugares que visito. Aunque mi tiempo como narrador es corto, la necesidad de mostrar mis trabajos cada vez es más fuerte.

He tenido la suerte de poder visitar varios países, cada cual tiene una cultura, unas tradiciones y unos rasgos más o menos característicos. Pero a pesar de estas diferencias, que entre ellos encuentro, hay algo que no varía en ningún ser humano, y es la narrativa de sus vidas que sus miradas nos transmiten.

Miradas que me atraen y subyugan hasta extremos insospechados, y en las que me he basado para presentar esta colección.

www.manuelvilanova.com





Jose Manuel Lucena

TOPALEKU: Maiatzak 6-29 Mayo

Astelehenetik igandera – 19:00-21:00 – Lunes a domingo
Larunbat eta igandeetan – 12:00-14:00 – Sábados y domingos

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeko kidea naiz. Laurogeigarren hamarkadaz geroztik naiz argazkilaritza-zaletua, eta gutako gehienok bezala, bi etapa bizi izan ditut: argazkilaritza analogikoa eta aro digitala. Lehenengoari dagokionez, hastapen-ikastaroak egin genituen, era ezberdinetako pelikulekin ateratzen genituen argazkiak, koloretan, diapositiban, zuri-beltzean..., eta pelikularen errebelatua zein kopiaren positibatua ere egin genituen.

Urte batzuetako geldialdiren ondoren, aro digitalari ekin nion, argazki digitalak negatibo edo diapositiba batek adina kalitate edo gehiago eskaini diezagukela argi izan nuenean. Photoshop-eko hainbat ikastaro teknikotan eta argazkilaritza garrantzitsuek emandako hainbat tailerretan izan naiz.

Nire gustuen artean ez dut argazki mota zehatz bat, ikusi eta atentzioa ematen didan guztiari ateratzen diot argazkia, baina gehiago jotzen dut erretratua eta paisaia-argazkirantz, eta kasu honetan formatu handia aukeratu dut, ikuslearengan egonezina eragiteko.

Formo parte de Eibarko Klub Deportibo Argazki Taldea. Aficionado a la fotografía desde los años ochenta, como la mayoría de todos nosotros hemos vivido dos etapas: a fotografía analógica y la era digital. En la primera, realizando cursillos de iniciación fotográfica y disparando en distintos tipos de película, color, diapositiva y película en blanco y negro, realizando tanto el revelado de la película como el positivado de la copia.

Tras unos años de lapsus, comencé en la era digital, no sin antes convencerme de que había llegado el momento en el que la fotografía digital podía ofrecer tanta o más calidad que un negativo o una diapositiva. He asistido a distintos niveles de cursos técnicos de Photoshop y otros talleres impartidos por referentes actuales de la fotografía.

Dentro de mis gustos no tengo definido un tipo de fotografía en concreto, sino que me gusta fotografiar todo aquello que veo y me llama la atención, pero me inclino más hacia el retrato y la fotografía de paisaje; y, en ese caso, por el gran formato para provocar inquietudes en el espectador.

Oskar Gaskon

(Ohorezko Saria 2015eko Indalezio Ojanguren Lehiaketan)

PORTALEA: Maiatzak 6-29 Mayo

Asteartetik igandera – 18:30-20:30 – Martes a domingo

Urteak pasa dira 2004an Irungo Argazkilari Elkartean (AFI) oinarritzko argazkilaritza ikastaroa egin nuenetik. Orduz geroztik argazkilaritza nire grina bihurtu da, nire bizitzan leku berezia betetzeraino.

Argazkilaritzaren barruan bizigarri edo motibazioa dira lehiaketak; poz handiak jaso izan ditut lehiaketetan, baina ez da egiten dudan gauza bakarra; publikoari erakusten ez diodan argazki pertsonal bat daukat, lehiaketakoa bezain atsegingarria dena.

Indalecio Ojanguren Saria irabazteak Eibarko Portaleko erakusketa-aretoan nire lanak erakusteko aukera eta pribilegioa eskaini dit. Norberaren izenean eta nire hiritik (Irun) kanpora egiten dudan lehen erakusketa da; hainbat bilduma aurkeztuko ditut, estudioko argazkietatik hasita erreportajeraino, paisaiatik pasatuz, horixe baita gaur egun gusturen sentiarazten nauen gaia.

Ordenagailu bidezko edizio uneak ere hor daude; beste sormen bat hedatzen laguntzen didate... eta ezustekoak ere hartzen dituzu (atseginak eta desatseginak). Eta sentsazio horiek guztiak paperezko argazki-erakusketa batekin amaitzea erantzukizuna da niretzat, eta ilusio handi bat.

www.oskargaskon.com


Ya han pasado unos años desde que en 2004 hice el curso de fotografía básico en la Asociación Fotográfica Irunesa (AFI). Desde entonces la fotografía se ha convertido en mi pasión y en algo muy presente en mi vida. Un estímulo o motivación dentro de la fotografía es la concursística, en la cual he tenido algunas satisfacciones. Pero no es lo único que hago: hay una fotografía personal que no muestro al público y que es igual de gratificante que la de concurso.

Ganar el Indalecio Ojanguren me da la oportunidad y el privilegio de poder exponer nada menos que en la sala de exposiciones Portalea de Eibar. Es mi primera exposición a título individual y fuera de mi ciudad, Irun; en ella presentaré un variado de colecciones, desde la fotografía de estudio hasta el reportaje, pasando por el paisaje, que es el tema en el que más a gusto me encuentro.

Y también están los momentos de edición con el ordenador, que me permiten expandir otra creatividad... además de llevarte muchas sorpresas. Y culminar estas sensaciones con una exposición de fotografía a papel es para mí una responsabilidad, pero sobre todo una gran ilusión.

www.oskargaskon.com





enrique lopez tapia

Gipuzkoa Nazioarteko Saria

UNTZAGAKO JUBILATUEN ETXEA: Maiatzak 6-31 Mayo

Nazioarteko Gipuzkoa Saria Euskal Herriko eta Argazkilaritza Arteko Nazioarteko Federazioko Argazkilaritza Lehiaketarik ospetsuena da; ospe hori lortu du 43 edizioetan, nazioarteko parte-hartze altuarekin. 2015eko edizioa lanik onenak erakusten dira bertan; 46 herrialdetako 443 argazkilarik bildu ditu, 4.656 argazki guztira.

El Trofeo Gipuzkoa Internacional es el concurso fotográfico con mayor prestigio en Euskal Herria y dentro de la Federación Internacional de Arte Fotográfico, prestigio conseguido en sus 43 ediciones con una gran participación internacional. Se muestran las mejores obras de la última edición de 2015, que ha reunido a 443 fotógrafos de 46 países, con un total de 4.656 fotografías.

EKD-ko Argazkilaritza Taldea

AMBIGU ETA PORTALEA TABERNAK: Maiatzak 2-31 Mayo

Astelenetik igandera – 15.00-22.00 – Lunes a domingo

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak, azkeneko 32 urteetan (sortu zenetik data horretarainoko ibilbide osoaren jarraipen gisa), jardun nekaezinari eutsi dio argazkilaritzaren hedapenean, eta 2009an, Argazkilaritzako Sari Nazionalarekin (CEF) aitortu zioten lan hori. Hiru argazki-erakusketa antolatzen ditugu hilero. Prestakuntza-ikastaro irekiak antolatzen ditugu. Bazkideentzat barne-jarduerak antolatzen ditugu. Argazki Lehiaketak eta Rally-ak ere antolatzen ditugu.

Eta horrez gainera, Eibarko Argazkilaritza Maiatzean antolatzen dugu, argazkilaritza munduan erreferente bihurtu dena. Zortzi erakusketa, kale-argazkilaritza, talearak eta Rally-a hartzen ditu barne. Hori guztia Taldea osatzen dutenen lanari eta esfortzuari esker, oso aurrekontu txikiarekin gainera.

Eta, argazkiak ateratzen ditugu! Lehiaketa eta erakusketetan arrakasta lortzen duten argazkiak, gainera.

JOSE LUIS IRIGOIEN

www.deporeibar.com

Eibarko Klub Deportivo Argazki Taldea mantiene a lo largo de los últimos 32 años (como continuación de todo su recorrido desde su fundación hasta esa fecha) una actividad desenfrenada en la difusión de la fotografía, habiendo sido reconocido por ello con el Premio Nacional de fotografía (CEF) en 2009.

Organizamos tres exposiciones de fotografía mensuales, cursillos de formación abiertos al público, actividades internas para los socios, Concurso y Rally fotográficos. Y, como colofón, organizamos el Mayo Fotográfico en Eibar, evento que se ha hecho referente en el mundo de la fotografía a nivel estatal con ocho exposiciones, fotografía en la calle, talleres y Rally. Todo ello en base al esfuerzo de los componentes del grupo, que hacen posible todo ello con unos presupuestos muy reducidos. Y, además, ¡hacemos fotografías! Con gran éxito en concursos y exposiciones.

JOSE LUIS IRIGOIEN

www.deporeibar.com



manu barreiro

- Bergara Hiria XXX. Argazki Lehiaketa. *BERGARA*
- XXIV Kirol Argazki Lehiaketa. *BERGARA*
- XLII Nazioarteko Gipuzkoa Saria. *DONOSTIA*
- Legazpi Hiria 2014. *LEGAZPI*
- Indalecio Ojanguren XXVII. Argazki Lehiaketa. *EIBAR*
- XXV. Irungo Hiria Argazki Lehiaketa. *IRUN*
- Beasaingo Hiria 2014. *BEASAIN*
- Igartza Saria 2014. *BEASAIN*
- ONCE-ren Argazki Lehiaketa. *BILBAO*
- Nikolas Lekuona 2014. *ORDIZIA*
- Tolosa Herria 2014.
- Zumaiaiko XXVI Argazki Lehiaketa.

Argizaiola Trofeoa

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA: Maiatzak 2-31 Mayo

Astelehenetik igandera – 15.00-22.00 – Lunes a domingo

www.federacionfotovasca.org/argizaiola

70eko hamarkada erdialdean, mugimendu fotografiko agrupazionistak indar dezente zuen Euskal Herrian, eta informazioa eta esperientzia trukatzearen poderioz, harremanak sendotzen hasi ziren euren artean. Horrela, 1973an, Altsasuko Alaska hotelean, eta orduan Ipar Euskal Herrian zehar zeuden argazkizaleen talde batzuen artean, **Argizaiola Saria** sortu zuten. Sari honen berezitasuna zenbait lehiaketetan aukeraturako argazkien lehiaketa egin eta, modu berean, erakusketa ibiltari bat zen. Horen ondorioz, **Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkartea** sortu zen, 1978an. 2015an, **Argizaiola 2015**-erako sailkatzeko lehiaketaren batean saria lortu zuten gonbidaturako 25 egileren 196 lan aurkeztu ziren.

En 1973, en el Hotel Alaska de Alsasua, y en el transcurso de diversas conversaciones entre los responsables de distintas Agrupaciones Fotográficas del País Vasco sobre una hipotética Federación, surgió la idea y fue convocado el Primer Trofeo **Argizaiola**. Aquellos momentos propicios para nuestro asociacionismo fotográfico dieron por fin resultado con el nacimiento de la **Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco** en 1978. En 2015 se presentaron 196 obras de 25 autores, invitados por obtener premios en alguno de los concursos clasificatorios para **Argizaiola 2015**. El resultado final está a la vista en esta exposición.



bakarne elejalde

erakusketa

oskar baglietto

kolektiboa





© Eduardo Momeñe. 1983

Argazkilaritza Jardunaldiak

Maiatzak 7 Mayo

Argazkilaritza-tailerra – **Eduardo Momeñe** – Taller de Fotografía

“Argazkilaritza praktikatzeko hainbat proposamen”

“Algunas propuestas para la práctica de la fotografía”

- Portalean / 8 ordukoa
- 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
- 20 euro / Plaza mugatuak
- argazkilaritza@deporeibar.com
- www.deporeibar.com/argazkia
- En Portalea / 8 horas
- 10:00-14:00 y 16:00-20:00
- 20 euros / Plazas limitadas
- argazkilaritza@deporeibar.com
- www.deporeibar.com/argazkia

Maiatzak 14 Mayo

Topaketak kalean argazkilaritzarekin

Encuentros con la fotografía en la calle

- 17:00-21:00
- Erakusketa kolektiboa aire librean, Untzagan.
- Doako estudio-erretatuak Udaletxepean.
- Kamara Minutularia.
- “Argazkilaritza artistikoa”-ren salmenta stand-a.
- 17:00-21:00
- Exposición colectiva al aire libre, en Untzaga.
- Retratos de estudio gratuitos en los soportales del Ayuntamiento.
- Cámara Minutera.
- Stand de venta de “Fotografía artística”.

Maiatzak 29 Mayo

Argazki Rallya / Rally Fotográfico

- Zurbeltzean eta Digitalean.
- Izena emateko: 08.30-09.30
- Klub Deportibotik irtenda
- Blanco y negro y Digital.
- Horario de inscripción: 08.30-09.30.
- Salida desde el Club Deportivo Eibar



2009ko
Argazkilaritza
Sari Nazionala
Premio Nacional
de Fotografía
2009



PORTALEX JATETXEA



Sdad. Fotogr. Gipuzkoa